

## Debalde

Osasun toxikologikoa – Euskara

*Mutil bat, Iker, taberna bateko barraren aurrean dago, alkandora zuriarekin. Barraren beste aldean zerbitzaria dago, Ane, Ikerri haserre samar begira. Ikerrek jada hutsik dauden hainbat garagardo eta kalimotxo edalontzi ditu aurrez aurre.*

**IKER**

Beste kalimotxo bat, eta honi ardo pixka bat gehiago bota, mesedez.

**ANE**

Nahikoa dela uste dut...

**IKER**

Tira, tira, atera beste bat...

*Neska bat, Inma, Ikerrengana hurbildu eta bere ondoan jarri da.*

**INMA**

Kaixo, Eneko zara, ezta?

**IKER**

Bai, hala da. Jarri berari ere kalimotxo bat, mesedez.

**INMA**

Ez, ez dut nahi.

**IKER**

Parrandarako prest gaude, ez?

**INMA**

Ez dut alkoholik edaten.

**IKER**

Ez duzula edaten? Atera bi trago berehala!

**INMA**

Ez dudala nahi esan dizut.

**IKER**

Lasai, lasai, niretzat dira!

**INMA**

Baina...

**IKER**

Atzealdeko mahaian zaudete, ezta?

**INMA**

Bai, hala da.

**IKER**

Esaten nuen bai, zure aurpegia ezaguna egiten zitzaidala... Beste trago bat, mesedez! Seguru ez duzula nahi? Nik ordainduko dut, gaur dena emateko prest nago-eta!

**INMA**

Barkatu, baina...

**IKER**

Bai, badakit, ongi pasatzeko edan beharrik ez dagoela esan behar didazu, ezta...

**INMA**

Bada, egia esan, horrela da, baina...

**IKER**

Badakit, badakit, ondo pasa daiteke kristoren atxurra harrapatu beharrik gabe...

**INMA**

Hori ere horrela da, baina nik esan nahi nizuna...

**IKER**

Begira, egia esango dizut, ostiral gauetan den-dena ematera irteten naiz ni beti...

**INMA**

Bada, gaur asteartea da.

**IKER**

Asteartea?

**INMA**

Bai, eta arratsaldeko hirurak dira.

**IKER**

Zer?

**INMA**

Eta gure mahaiko zerbitzaria ere bazara, eta gure edari guzti-guztiak edan dituzu jada. Baita tabernan dauden gainontzeko guztiena ere!

*Iker biratu egiten da eta gorputz osoz ikusten dugu, gerrian mantala duela. Tabernaren atzealdean mahai bat ageri da, bertan dauden lagunak Ikerrri begira-begira daudela haserre oso. Anek beste trago bat jartzen dio.*

**ANE**

Zu lasai, nik nahi beste trago aterako dizkizut, baina ziur egon kontua gero nagusiari pasako diodala zure nominatik kobra dezan...